

ARABAKO EUSKARA XIX. MENDEAREN HASTEAN. PRESTAMEROREN ARGIBIDEA HUMBOLDT-EN ONDAREAN

Henrike KNÖRR

1. Krakowian gordetzen den Humboldt-en ondarean bada dokumentu interesgarri bat, Arabako zer herritan euskara mintzaten den esaten diguna.¹

Argibide hori emateko, egileak Diputazioaren inprimaki ofizialeko zerrenda bat erabili zuen. Zerrenda hori administrazio zibilari zegokion, eta ez elizaren administrazioari. Hau da: herriak ez datoz bikarien arabera, baizik talde (gaztelaniaz *cuadrilla*) eta hermandadeen arabera. Taldearen edo hermandadearen izenaren eskuinaldean eskuz idatzi zituen datuak, hizkuntzari buruzkoak, batetik, eta gehienetan talde edo hermandadeetan zenbat familia-buru (*vecinos*) ziren, gehi batzuetan bestelako informazio bat. Hogeita hiru orrialde ditu dokumentuak, zenbakiz hornituak 751etik 773ra; garai hartan ezarri zenbakiak dirudite.

Zalantzarik gabe, Lorenzo del Prestamero (1733-1817) dugu argibide-emailea; letra harena da (nahiz bigarren pertsona bat tartean datekeen). Urizaharreko semea, apaiza, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kidea eta idazkariordea eta Espainiako Historia Akademiako urgazlea, Prestamerok lan handia egin zuen eta, besteak beste, Akademiak 1802an atera zuen *Diccionario Geográfico-Histórico* izenekoan. Pentsatu behar dugu Humboldt-ek eskatu ziola informazio hau. Urterik ez du izkribuak. Litekeena da Humboldt-en bigarren bidaian egina eta bildua izatea, hots, 1801ean.

¹ 5.166 zenbakia darama dokumentu honek. Euskaltzaindiaren liburutegiko mikrofil-maz baliatu naiz.

2. Ezaguna da Prestamerok Arabako euskararen egoeraz egin zuela lan bat, adierazteko zer herritan mintzatzen zen gure hizkuntza. 1803 ingurukoa da lan hori. Orain, Angel Ibisateren artikulu bikainari esker (ikus Ibisate 2001) ongi ulertzen dugu zerk eraginik idatzi zuen Prestamerok lan hori. Gatazkagiro zail batean bizi zen Araban Eliza, eta auzia zen nork izendatu behar zituen erretoreak eta apaiz-lagunak; dokumentu hark “carácter dialéctico” zuela dio Ibisatek, arrazoi osoz. Beste hau, aldiz, Humboldtten jakinminari dagokio, seguru aski.

3. Gure dokumentuaren lehen orrialdean, letra handiz, eta gurutze baten azpian, hau irakurtzen dugu:

LISTA
DE LAS QUADRILLAS, HERMANDADES
Y PUEBLOS
DE QUE SE COMPONE ESTA M.N. Y M.L. PROVINCIA
DE ALAVA

Eta ondoren hasten da herrien zerrenda. Zazpi taldetan daude hauek banatuak. Gure edizioan testua dagoen dagoenean ematen dugu, oharrez horritua, behar denean. Eskuzko informazioa guk letra etzanez ematen dugu. Originalean italikoz dagoena guk letra normala bihurtu dugu, biak nahas ez daitezten. Laburdurak garatu ditugu (adibidez, *Hermd.* > *Hermandad*), salbu M.N. Y M.L., hots, “Muy noble y muy leal”. Puntuazioa errespetatu dugu, bai eta letra larriz eta xeheaz, baita zenbakien ondoan (“2198. vezinos”, adibidez).

4. Dokumentua.

LISTA
DE LAS QUADRILLAS, HERMANDADES
Y PUEBLOS
DE QUE SE COMPONE ESTA M.N. Y M.L. PROVINCIA
DE ALAVA

QUADRILLA PRIMERA DE VITORIA²

Hermandad de Vitoria *En muchos pueblos de esta hermandad particularmente en los situados el norte se habla bascuence y romance y en Vitoria por razon del comercio casi todos le hablan. 2198. vezinos ind. [?]³ 1769.*

² Lehenik “QUADRILLA DE VITORIA” inprimaturik zegoen, eta gero zuzendu eta “PRIMERA” azpiko gezi baten bitartez sartu, batetik, eta “DE” tatxatu. “PRIMERA” eta “DE” eskuz idatziak dira, irakurleak argazkiak ikus dezakeenez.

³ Ez da ongi irakurtzen eta ez dago garbi laburdura hau.

1

| | |
|-------------------------|-------|
| ABechuco ⁴ | |
| Aberasturi | |
| Ali | |
| Amarita | |
| Arcaya | |
| Arcaute | |
| Arechavaleta | |
| Argandoña | |
| Armentia | |
| Arriaga | |
| Ascarza | |
| Berrosteguieta | |
| Betoño | |
| Bolibar | |
| Castillo | |
| Cerio | |
| Crispijana | |
| Elorriaga | |
| Gamarra mayor | |
| Gamarra menor | |
| Gamiz | |
| Gardeliguí ⁵ | |
| Gobeo | |
| Gomecha | |
| Junguitu | |
| Lasarte | |
| Lermanda | |
| Lubiano | |
| Matauco | |
| Mendiola | |
| Miñano mayor | |
| Miñano menor | |
| Monasterioguren | |
| Retana | |
| Oreytia | |
| Otazu | |

⁴ Lehenbiziko bi letrak larriz hemen eta pareko kasuetan, hots, talde bakoitzeko lehen herrian.

⁵ Aski arrunta izan da forma hau, *i* -*i* bukaeran asimilazioz

Villafranca
Vitoria
Ullibarri-Arazua
Ullibarri de los Olleros
Ilarraza
Subijana
Zuazo
Zumelzu

Hermandad de
Añana.

2

Añana
Astulez
Atiega
Caranca
Puente-Larrá
Sobrón

Hermandad de
Bernedo.⁶

3

Angostina
Bernedo
Navarrete
Villa-Fria

Hermandad de *se representa por Procurador o Diputado Provincial que*
Guebara *envía esta Hermandad desde el año de [sic] se habla el*
 bascuence y romance [sic]. 90. vezinos.

Elguea
Etura
Guebara
Urizar

⁶ “Hermandad de Bernedo”-ren gainean 3 idatzi zen lehenik, eta gero gainmarratu zen.

Hermandad de *Envia Procurador por acuerdo de la Junta de 20 de*
Berguenda y *Noviembre del 1799. 102. vezinos.*
Fontecha

5

Berguenda
Fontecha

Hermandad de Estavillo y
Armiñon.

6

Armiñon
Estavillo

Hermandad de
Morillas.

7

Morillas
Ormijana
Subijana

Hermandad de
Labraza.

8

Barriobusto
Labraza

Hermandad de Tuyó.

9

Tuyó

Hermandad de Portilla.

10

Portilla

Hermandad de
Ijona

11

Ijona *se habla el bascuence 20. vezinos*

Hermandad de
Martioda

12

Martioda *se habla el bascuence 20. vezinos.*

Hermandad de
Oquina

13

Oquina

Hermandad de
Bellogin

14

Bellogin

Hermandad de
Larrinzar

15

Larrinzar *se habla el bascuence 8. vezinos.*

Hermandad de
Andollu

16

Andollu

Hermandad de *se habla el bascuence 5. vezinos.*
Lacha y
Barria.

17

Lacha y Barria

*Hermanidad de San
Juan de Mendiola
Extinguida*

QUADRILLA SEGUNDA DE SALVATIERRA⁷

Hermanidad de
Salvatierra.

1

ALangua
Arrizaga⁸
Eguilior
Opaqua
Salvatierra

Hermanidad de *se habla en la mayor parte de estos Pueblos 328. vezinos*
Iruraiz.

2

Acilu
Alayza
Alegria
Añua
Arbulo
Argomaniz
Arrieta
Eguileta
Esquerecocha
Gaceo
Gaceta
Gauna
Guereñu
Herenchun
Jauregui

⁷ Aurrekoan bezala, lehenik “QUADRILLA DE SALVATIERRA” idatzi zen, eta gero gezi baten bidez “SEGUNDA” sartu.

⁸ Sic (*Arrizala* espero zen).

Langarica
Luscando
Troconiz

Hermandad de
Arana.

3

Alda
Contrasta
San Vicente
Ullibarri de Arana

Hermandad de *se habla bascuence 395. vezinos*
San Millan.

4

Adana
Albeniz
Aspuru
Chinchetru
Eguilaz
Galarreta
Luzuriaga
Mezquia
Munain
Narbaja
Ocariz
Ordoñana
San Roman
Vicuña
Ullibarri-Jauregui
Zuazo

Hermandad de
Arraya, y la
Minoria.

5

Alecha
Apellaniz
Arenaza

Arlucea
Atauri
Azaceta
Berroci
Cicujano
Corres
Leorza
Maestu
Onraita
Roytegui
Vurgala mayor
Vurgala menor
Urarte
Ibisate
Igoroin
Izarza

Hermandad de
Campezo

6

Antoñana
Bujanda
Orbisu
Oteo
Sabando
Santa Cruz de Campezo
San Roman

QUADRILLA TERCERA DE AYALA⁹

Hermandad de Ayala.¹⁰ *se habla bascuence y se hace mayor uso del romance 1884. vezinos*

AGuiñiga
Añes
Amurrio

⁹ Hemen ere, lehenik “QUADRILLA DE AYALA” idatzi zen, eta gero gezi baten bidez “TERCERA” eskuz tartekatatu.

¹⁰ Hemendik aitzina zenbakirik ez.

Astobiza
Barambio
Costera
Echegoyen
Erbi
Larrimbe
Lecamaña
Lexarzo
Lezama
Llanteno
Luyando
Luxo
Madaria
Maroño
Menagaray
Mendieta
Menoyo
Murga
Oceca
Olabazar
Oquendo
Quejana
Respaldiza
Retes de Llanteno
Retes de Tudela
Salmanton
Santa Coloma
Saracho
Sojo
Sojoguti¹¹
Veotegui
Izoria
Zuaza

Hermandad de *se habla bascuence y romance* 94. *vezinos*
Arciniega

Arciniega
Campijo
Gordeliz

¹¹ Hutsa da: Sojoguti Artziniegako hermandadeari dagokio (ikus beherago, hermandade horretan).

Sojoguti
Villasus

Hermandad de *bascuence 476. vezinos*
Llodio.

Quadrilla de Gogenuri
Idem, Larra
Idem, Larrazabal
Idem. Olarte

Hermandad de *bascuence y romance 144. vezinos*
Arrastaria.

Aloria
Artomaña
Delica
Tertanga

Hermandad de *bascuence y romance 115. vezinos*
Urcabustaiz.

Abecia
Abornicano
Apreguindana
Beliunza
Gujuli
Larrasqueta
Ondona
Oyardo
Unza
Uzquiano
Izarra

QUADRILLA CUARTA DE LAGUARDIA¹²

Hermandad de
Laguardia.

Baños de Ebro
Cripán

¹² Lehenik “QUADRILLA DE LAGUARDIA” idatzi zen, eta gero gezi baten bidez “QUARTA” eskuz tartekatu.

Elciego
Elvillar
Laguardia
Lanciego
Moreda
Navaridas
Oyon
Leza
Paganos
Puebla de la Barca
Samaniego
Villa-Buena
Yecora

Hermandad de
Tierras del
Conde.

Baroja
Berganzo
Faydo
Labastida
Lagran
Loza
Montoria
Ocia
Payueta
Peñacerrada
Pipaon
Villaverde
Zumento

Hermandad de
Salinillas.

Salinillas de Buradon

Hermandad de
Marquinez.

Marquinez
Quintana
Urturi

Hermandad de
Brantevilla.

| | |
|-------------|-------|
| Brantevilla | |
| Escanzana | |
| Lacervilla | |
| Mijancas | |
| Santa Cruz | |
| Santa Maria | |
| Santurde | |
| Tobera | |
| Zambrana | |

Hermandad de *bascuence y poquisimo romance 440. vezinos*
Aramayona.

| | |
|-----------------|-------|
| Arejola | |
| Azcoaga | |
| Barajuen | |
| Echaguen | |
| Ganzaga | |
| Olaeta | |
| Uncella | |
| Uribarri | |
| Zalgo, ó Ibarra | |

Hermandad de *bascuence y romance 240. vezinos*
Villa-Real.

| | |
|------------|-------|
| Elosu | |
| Gojain | |
| Nafarrate | |
| Villa-Real | |
| Urbina | |
| Urrunaga | |

QUADRILLA DE MENDOZA¹³

Hermandad de
Mendoza.

¹³ Hemen, berriz, taldea ez da zenbakiz hornitu.

Estarrona
Mendoza

Hermandad de Cigoytia *basquence y romance 393. vezinos*

Acosta
Apodaca
Berricano
Buruaga
Cestafe
Echaguen
Echavarri
Eribe
Gopegui
Larrinoa
Letona
Manurga
Mendarozqueta
Murua
Olano
Ondategui
Zaytegui

Hermandad de
Ubarrundia.

Betolaza
Ciriano
Landa
Luco
Ullibarri-Gamboa

Hermandad de Arrazua. *basquence y romance 97. vezinos*

Arroyabe
Arzubiaga
Durana
Mendivil
Zurbano

Hermandad de Badayoz.

Antezana
Aranguiz

Artaza
Asteguieta
Foronda
Guereña
Legarda
Lopidana
Mandojana
Mendiguren
Otaza
Ullibarri de Viña
Yurre

Hermandad de
Los Guetos.

Gueto de Arriba
Gueto de Abajo

Hermandad de *bascuence y romance 66. vezinos*
Iruña.

Ttespuentes
Villodas
Iruña

Hermandad de
Lacozmonte.

Artaza
Barron
Cárcamo¹⁴
Escota
Fresneda
Guinea

Hermandad de *bascuence y romance 262. vezinos*
Barrundia.

Audicana
Dallo

¹⁴ Azentudun originalean.

Echavarri
Heredia
Hermua
Larrea
Maturana
Otaza
Ozaeta
Zuazola

Hermandad de *bascuence y romance*¹⁵
Asparrena.

Amezaga
Andoin
Araya
Arriola
Eguino
Gordoa
Urabain
Ibarguren
Ilarduya
Zalduendo

Hermandad de *bascuence y romance 161. vecinos*
Gamboa.

Azua
Garayo
Marieta
Mendijur
Mendizabal
Nanclares
Orenin
Zuazo

Hermandad de
Ariñez.

Ariñez
Esquivel
Margarita

¹⁵ Biztanleriaz daturik ez.

QUADRILLA DE ZUYA¹⁶

Hemandad de *bascuence y romance 373. vezinos*
Zuya.

Amezaga
Aperregui
Arechaga
Domayquia
Guillerna
Jugo
Luquiano
Marquina
Murguia
Sarria
Vitriano
Zarate

Hermanidad de
Quartango

Anda
Andagoya
Apricano
Archua
Arriano
Catadiano
Echavarri
Guillarte
Jócano¹⁷
Marinda
Santa Eulalia
Sendadiano
Tortura
Villamanca
Ullibarri
Urbina de Basabe
Urbina de Eza
Inurrita
Zuazo

¹⁶ Besterik gabe.

¹⁷ Azentudun originalean.

Hermandad de
la Ribera.

| | |
|----------------------------------|--|
| Antezana | |
| Anucita | |
| Arbigano | |
| Arreo | |
| Basquiñuelas | |
| Carasta | |
| Castillo | |
| Caycedo de Sopena | |
| Caycedo de Yuso | |
| Comunion | |
| Hereña | |
| Lacorzana | |
| Lasierra | |
| Leciñana del Camino | |
| Leciñana de la Oca | |
| Mantuvite | |
| Manzanos | |
| Melledes | |
| Molinilla | |
| Nanclares | |
| Nuvilla | |
| Ollabarri | |
| Paul | |
| Pobes | |
| Quintanilla | |
| Ribaguda | |
| Ribabellosa | |
| Salcedo | |
| San Miguel | |
| San Pelayo | |
| Turiso | |
| Viloria | |
| Villambrosa | |
| Villa-Lengua ¹⁸ | |
| Villabezana | |
| Igay | |

¹⁸ *Villa-Luenga* behar zen.

Hermanidad de
Baldegovia.

| | |
|--------------------|--|
| Acebedo | |
| Alcedo | |
| Bachicabo | |
| Balluerca | |
| Barrio | |
| Basabe | |
| Bobeda | |
| Corro | |
| Espejo | |
| Gurendez | |
| Mioma | |
| Nograro | |
| Osma | |
| Pinedo | |
| Quejo | |
| Quintanilla | |
| Tovillas | |
| Tuesta | |
| Villamaderne | |
| Villanañe | |
| Villa-Nueva | |

Hermanidad de
Balderejo.

| | |
|---------------------|--|
| Lalastra | |
| Laoz | |
| Ribera | |
| Villamardones | |

[Humboldten oharra, Nafarroari buruz, izkribuaren azken orrialdean. Ezagutzen ez dugun beste zerrenda baten gainean mintzo da.]

In allen angezeigten Orten predigt man Vasquisch. Navarra hat 300000 Einwohner. Man spricht im ganzen Norden in den an Alava, Guipuzcoa und die Pyrenaeen angränzenden Theilen, und auch in Pamplona Vasquisch¹⁹]

¹⁹ Hots: “Ezarriak diren herri guztietan euskaraz predikatzen da. Nafarroak 300.000 biztanle ditu. Euskaraz mintzatzen da Araba, Gipuzkoa eta Pirinioen mugakide diren aldeetan, bai eta Iruñean ere”.

4. Nabari da dokumentuak baduela halako zirriborro itxura. Argibidean ez da sakontzen. Harrigarria da, demagun, Kanpezuko hermandadea guztiz erdalduna agertzea, dakigularik Sabandon, 1870 inguruan, euskaraz hitz egi-ten zela²⁰.

BIBLIOGRAFIA

- BARANDIARAN, José Miguel. 1926. “El euskera en Alava a fines del siglo XVIII”. *RIEV* 17, 464-467. Facsimile moduan egile beraren *Obras Completas*-en, III: *Ikuska 1º (Artículos y conferencias)*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo 1973. Osorik argitaratu zen *Geografía histórica de la lengua vasca liburuan, Auñamendi, Donostia 1960 (2. argitaraldia 1966)*, 361-365.
- IBISATE, Angel. 2001. “El euskera en Alava a fines del siglo XVIII. Un artículo de Don José Miguel de Barandiaran de 1926. Anotaciones actuales sobre el documento publicado”. *Euskera* 46:2, 783-803.
- KNÖRR, Henrike. 1998. *Lo que hay que saber sobre la lengua vasca en Alava / Arabako euskarari buruz jakin behar dena*. Caja Vital, Gasteiz.
- OTSOA DE ALDA, Jabier, eta Estibalitz BREÑAS. 2002. *Arabako euskal hotsak. Antecedentes del euskera en Alava*. GEU, Gasteiz.

²⁰ Ikus Knörr 1998, 17, eta 9. oharra.